

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure aplikazioaren arrakasta bermatzeko, ekintza eta prozesu giltzarriak beren garrantzi estrategikoaren arabera lehenetsi eta egituratu ditugu:

Aplikazioa egingo den **plataforma diseinatzea eta garatzea**: Mugikorreko aplikazioa edo webgunea garatu eta aplikazioa **zerbidoreak jasangarria** izan dadin lortu behar dugu, baina **IOS** eta **Android** sistemekin bateragarria eta **Funtzionalitate gakoak** integratzen dituen egutegiak, gogorazleak, zereginen kudeaketa eta plataforma anitzeko sinkronizazioa. **Adimen artifiziala erabiltzea** gomendio pertsonalizatuak emateko eta denbora optimizatzeko ere funtsezkoa da.

Aplikazioa aurrera atera dadin, hobetu behar diren beharren berri emango diegu **erabiltzaileei**. Horrez gain, **inkesta** eta **hitzaldien** bidez, erabiltzaileei galdetuko diegu zer aldaketa egin beharko genituzkeen beren beharretara **egokitzeko**.

Negozio-plan sendo bat sortzea funtsezkoa da ikuspegi argia ezartzeko eta funtsezko rolak definitzeko. Bai negozioa martxan jarri aurretik egin genuen plan estrategikoa zein behin martxan jarrita diseinatuko ditugun plan operatiboak funtsezkoak dira negozia bideragarritasuna lortzeko.

Beste aspektu garrantzitsu **bat sare sozialen kudeaketa** izango da., TikTok, Instagram eta YouTube kontuak sortuko ditugu gure kanpaina **modu eraginkorrako** batean sustatzeko. Gainera, hainbat influencer-en parte-hartzea gehituko dugu, aplikazioa inguruan **hobeto sustatzen** laguntzeko.

Horrela, gure aplikazioa gehiago ezagutuko da, eta jende gehiagorengana iritsiko gara, aplikazioa probatu dezaten. Honek lagunduko digu **hazten** eta inguruko antzeko aplikazioekin **konpetentzia** egiten.

